


30 etnia baino gehiago bizi da Afganistanen. Paxtunak bost bat milioi dira orain (zortzi bat 1979 baino lehen): populazioaren %40a. Bostetik bat nomada edo semi-nomada da. Taldekatuta bizi dira: bi talderik handienak (milioi t'erdi lagun bakoitzak) durraniak eta gilzaikak dira. Dzadranak, vardakak, mangalak, kakarak dira beste talde garrantzitsu batzuk.

Tadjikak, ipar-ekialdean, 3 milioi dira. Hazarak, 1,3 milioi, Kabul eta Herat artean, erdialdean. Uzbekak, 1,3 milioi, ipar-mendebaldean. Turkmenak, 300.000, SESBekiko mugadun lur-lerro batean. Hego-hegoaldean, baluxak ditugu, 130.000. Beste etnia guztien artean 800 bat milako kopurua iristen dute.



1978an heldu zion botereari. Taraki izan zen etapa berriko lehenbiziko presidentea, eta Amin bigarrena, eta biak afusilaturik garbitu zituzten denbora gutxian. Karmal heldu zen, eta 1979a zen, eta mendebaldeko prentsak sobietar tropen presentzia salatu zuen lehen-dabizikoz. Egundainoxe.

Otsailaren 15 honetan burutzekoa da sobietar tropen erretiratze totalak. Lehengo urteko udaberriko Genèveko akordioak sinatu zituztenean gauzak piska bat hobetoxeago irtengo zitzaizkiela pentsatuko zuten Moskuko agintariek. Baina gerrilak ez du tregoarik eskaini. Areago, guztiz ofentsibara jo du. Udaberri honetarako alimaleko eraso espero da. Pakistandik teknikoak heldu dira, eta misil sofistikuak, eta komunikaziorako materialak —gerrila mugimenduen ahulezietariko bat: ez dago apenas karreterarik Afganistanen.

1988ko udazkenean sei jeneral pakistandar, mando gaineen omen, Panshir bailarara ailegatu ziren, eta Rabanirekin bildu. Hiriburuaren hartzerako planak tajutu zituzten. Operazioa Ahmad Shah Massud Jamiat-Islamiko prestijio handiko komandanteak zuzenduko zuela erabaki zuten. Alta bada, Rabani eta Massud, biak dira tadjikak (eta ez kasualitatez, gero ikusiko dugunez), eta estatuaren gehiengo osatzen duten paxtunen buruzagi tradizionalak begi makurrez ikus dezakete postura hori.

Sobietarren erregea

Baina horretara baino lehen, historia- ren azkeneko aztarnak segitu ditzagun. Babrak Karmalek 1986ko maiatzean utzi behar izan zuen estatuaren lehendakaritza, eta Mohammed Najibek jaso zion txanda. Erradikaltasunetik urrun, oso bestelako doinuaz hitzegiten hasi zen Najib: zer zetorren bazekiketen eta ordurako sobietarrek. Hala, bakearen beharraz aritzen zen sarriagotan, eta oposizioak ez ziren harekin jadanik «bandidoak» izango, «estremistak» baino. Bere alderdiaren zuzendaritzaz boterea partitu zitekeela onartu zuen. Nekazaritzan, lur jabego handiagoak onetsi zituen, 5 hektareatik 25era igaroz. Merkataritza eta kapitalista txikientzako subentzioak bideratu zituen. Marxismozko liburuak erretiratu zituen eskuletatik. Islami buruzko aferetarako ministraritza bat sortu zuen. Orain, gaue- ro, telebistan, programazioaren bukaer- an hiru ordu laurden eskaintzen zaiz- kio Koranaren irakurketari. 1987an «berkontziliatze»az hitzegiten hasi zen, herbesteratutakoen bueltatzeaz ere; arrakasta gutxiz bigarren horretan, lau-bost milioi errefuxiatuetarik 150en bat mila itzuli bait zen soilik 88ko bu- kaerarako.

1988ko maiatzean sobietarrek beren martxa hasi zutelarik, Afganistan eta Pakistanen arteko negoziaketak ondo

Kabulerako planak

Ingelesak aipatu ditugu gorago, eta on dateke haiek han zeudeneko eta ge- roagoko garai haiek axal-axalki gogora- tzea, gaurko egoeraren azalpen gehia- goren bila. Ingelesak Afganistan kon- kistatzerik inoiz lortu ez bazuten ere, haiekiko borroken ondorioz galdu zi- tuzten afganiar emirrek Indo ibaia bi- tarteko lurrak, egun Pakistanenak dire- nak, paxtuniar populazioak dituztenak.

1919an ingelesek aldebat hanka egin zutelarik Afganistandik, monarkia bat ezarri zen boterean, eta berehala iraui- tza egin berriko sobietarrekin estutu zi- tuzten harremanak. 1950.eraiko kanpo «laguntza»ren %60a jasotzen zuten ipa- rralde horretatik. 1963an sortutako He- rriaren Alderdi Demokratikoa (HAD)-ek